

GIL 99 Pasaia-Donostiako labar estrukturalak



Jaizkibeleko labarren panoramika.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 20' 9" N

Long.: 1° 55' 6" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 587.685,42 m

Y: 4.798.677,85 m



Nola iritsi

Bide bat baino gehiago dago. Portuaren albo bietatik lor daitezke GIL honen ikuspegi onak. Pasai Donibanetik faro aldera edo Arandoaundiako puntara doazen bideak har daitezke, edo Pasai San Pedrotik Platako farol aldera doan bidea. Ikuspegi panoramikoa goa lor daiteke goiko aldera igoz gero. Jaizkibelera doan errepidea hartu, eta, Txartxikun baserria igaro ondoren, bihurgune estu bat pasatu eta gero, ezkerretara sortzen den lehenengo edo bigarren goa hartu. Labarretara hurbilduko dira.



Okerdurak Jaizkibelgo labarren morfologia duen kontrolaren xehetasuna.

GILaren deskribapen laburra

Bidasoaren bokaletik Zumaiaraino, egitura monoklinal handi bat dago, eta horren barruan Jaizkibel-Ulia lerrokadura dugu adibide adierazgarriena. Erliebe estruktural bat da. Eozenoko flyscheko hareharriez osatuta dago. Erliebea aldapan du, bizkarrak itsaslabarra eratzen du, eta aurrealdeak oso isurialde malkartsua du, zeinak Irun-Donostia korridorearen iparraldeko ertza osatzen baitu.

Bizkarrak kostalde honetako labarrak eratzen ditu, eta sortzen den morfologiak lerrokadura bat itxuratzen du, toki batzuetan 300 m-ko garaiera gainditzen duena (Mitxitxola, 332 m). Bertako topografiak oso ondo irudikatzen ditu okerduraren balioak eta aldaerak: balio horiek handiagotuz doaz mendebaldera egin ahala, eta, Pasaiaetik gertu —GIL hau dagoen inguruan—, bertikalak dira edo ia bertikalak. Geruzen orientazioa ere aldatuz doa, IMtik IIEra.



Platako farolako labar estrukturalak. Okerdura ia bertikala da.

Sare hidrografikoak, bestalde, oso dinamika aktiboarekin eragiten dio labarrari. Kokapen kataklinala du, hau da, geruzen maldak duen norabide berean kokatuta dago, eta ibai-tarteak oso ondo bereizten ditu “*chevron*” edo “itsasontzi-branka”ren itxura emanaz. Erreka-zulo horiek izaera erdi-uholdezkoa dute. Malda eta biguntasun handieneko lerroak aprobetxatzen dituzte bidea irekitzeko, hau da, kontaktu litologikoak, apurtuneak eta diaklasak. Gero eta gutxiago daude mendebalderantz jo ahala, eta, azkenean, haien ordez, *hogback*ak eta ebakidura sakonez banandutako barrak agertzen dira, Monpaseko mutur aldean.

Hareazko guneekin tartekatuta, tuparrizko edo buztinezko beste gune batzuk daude. Higadurak azken horiei eragiten die batez ere, eta zulatu egiten ditu. Horrenbestez, ha-reharrizko bloke batzuk askatu eta erori egin daitezke tokirik maldatsuenetan: erreka-zuloen eta isurialdeen goiko partean; ondorioz, kolubioi-metaketak eratzen dira.

Eremu honetan, unitate monoklinala zatitu egiten da Oiartzun ibaiaren bokaleak sargune sakon bat eratzen duelako. Sargune horretan, Pasaia portu ezaguna dago gaur egun. Oiartzun ibaiak, ibilbide laburra duen arren, desnibel handia du, eta, goi-ibarrean — Aiako Harrian — prezipitazio ugariak eta sendoak egoten direnez, ibaiak ur-emari handia izaten du.

Behatzeko punturik onena

Arandoaundia muturretik edo Platako farolaren begiratokitik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 50, GIL 115, GIL 77, GIL 136.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 100, GIL 101, GIL 102.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					